

Salmenta honen bitartez zalantzazko aktiboak eta kobraezinak garbitzeko prozesua ia erabat amaituko du Bankuak

## **Kutxabankek Bain Capital Crediti saldu dio 700 milioi euro inguruko sustapen-arrisku problematikoko zorroa**

- **Eragin positiboa du berankortasunean, %4tik behera kokatzen baita, eta kaudimenean, CTE1 'fully loaded' oinarriko 10 puntu inguru hobetzen baita**
- **Bankuaren egoera bikaina finkatzen du aktiboen kalitateari eta kaudimenari dagokienez**

**2018ko abenduaren 21ean.** Kutxabank taldeak Bain Capital Credit LP-k kudeatutako erakunde bati sustapen-arriskuari lotutako zorro problematikoa saldu dio, 700 milioi euro inguruko balio gordina duena. Zorro hau, higiezinaren sustatzaileei emaniko **zalantzazko aktiboz eta huts egin duten maileguz** osatua dago, Non Core Real Estate negozio alorrak kudeatu izan du, eta mailegu hipotekarioa duten maileguz osatua dago funtsean. Hein handi batean zoruaren gaineko mailegu garantizatuak dira –%48–, eta finantza Taldeak eragin handiena duen zonaldeetan, hau da, Andaluzian eta Euskadin kokatzen diren amaitutako etxebizitzak, %29.

Eskaintza lehiakorreko prozesu baten bitartez burutu da salmenta, eta Alantra inbertsio bankua ere parte hartu du, eragiketaren koordinazioa egin baitute. Taldeak hilabete batzuetan zehar eragiketa honetan lan egin du, eta interesa zuten inbertsoreen eskaintza adierazgarri eta lotesleak jaso ondoren, salmentarekin itxi du.

Era honetako aktiboen gainean inbertsio gurari handia dagoen une batean egin da operazioa. Horregatik erabaki du euskal finantza Taldeak era honetako eragiketa bat lehen aldiz egitea, bide batez finantza sistema osoko arrisku-profil onenetakoa duen erakunde finkatzen baitu. Egoera hori bera berriki baieztatu dute estres eta gardentasun froga desberdinek.

Zorroaren salmentak garrantzi txikiko eragina izan du Taldearen emaitzetan. Gainera, auzitan eta era honetako aktiboen kudeaketan sortutako kosteak murrizten ditu, eta negozioaren lehentasun osoa ohiko banka-jardueraren bilakaerari eskaintzeko aukera ematen dio Bankuari.

**Berankortasun ratioan** izango duen eragina oinarriko 50 puntu ingurukoa izango da, eta beraz **%4tik behera** kokatuko da.

Eragiketa honek **CTE1 'fully loaded' kapitalean** ere eragin positiboa izan du, oinarriko 10 puntu inguru hobetzen baita. Honela, Estatuko finantza sistema osoan lehen mailako kaudimen handiena duen erakundea da Kutxabank, lidertza hori sendotuz.

Bain Capital Creditek ([www.baincapitalcredit.com](http://www.baincapitalcredit.com)) bere kapital egitura maila guztietan eta mailegu estrategia aukera guztietan inbertitzen du, tartean mailegu apalankatuak, errendimendu handiko bonoak, *disstressed* zorra, mailegu pribatuak, egituratutako produktuak, zalantzazko edo huts egindako maileguak eta akzioak. 200 profesionaletik gorako taldeak balorea sortzen du azterketa sakon eta independente batetik abiatuta, mundu osoko milaka jaulkitzaile korporatibotan. Maileguetaz gain Bain Capital Creditek aktibo maila desberdinetan inbertitzen du, kapital pribatua, publikoa eta arriskukoa tartean, eta enpresaren plataforma partekatuaren bitartez interes handiko arlo estrategikoetan aukerak bereganatzen ditu.

Eragiketa honetan, Bain Capital Creditek Copernicus, Aura REE, JLL, Básico eta Allen & Overy-ren aholkularitza izan du.

---